

- game V. (B...); *koko*, bobo; *mamo*, boba (B. ms. Otx. p. 15).
14. *Ondasun*, bienes hacienda; *ontasun*, bondad (B).
 15. *Oba*, mejor (cosa); *onago*, más bueno (persona).
 16. *Orátz*, alfiler (antes aguja); *jostorátz*, aguja (B).
 17. *Oráztu*, peinar; *orázitu*, enrarecerse la lluvia, quitar espesura, clarear semillero (B-l).
 18. *Osasun*, salud; *osotasun*, entereza, integridad.
 19. *Ondatu*, hundirse, calarse, arruinarse; *ondoratu*, ir al fondo, naufragar (B-l).
 20. *Lan egin*, trabajar; *landu*, labrar, cultivar (B).
 21. *Osotu*, reintegrar, completar; *osatu*, sanar, castrar.
 22. *Etxada*, hacendosa; *etxandera*, propietaria (B-mu).
 23. *Sendatu*, sanar; *sendotu*, fortalecerse (B).
 24. *Uzu*, fiero; *uxu*, espanto (B).
 25. *Zapaldu*, aplastar; *zapatatu*, chapotear y desbaratar?
 26. *Zoldu*, enconarse; *zolilu*, madurar (B. ms. Otx. p. 260).

Ona emen, lan oni noizbait azkena emateko, itz zar ta beñiz uste dedana. Befirik noraezean baizik ez sortu; zarak aŕen bai aŕen bildu ta eguneroko paper ta ikasgu edo eskolen bidez Euskalefi guztian zabaldu.

§ XI

ARAU NAGUSIAK

(BELAUSTEGIGOITIA' TAŔ P. EUSKALTZAIN URGAZLEAK, EPAILĀ'REN
24 GAŔENeko BATZĀREAN EGINDAKO IKĒRPENA').

1. Euskeraren bizitza ta apaintzerako Euskaltzaindia soŕtu zan.

Euskera *baŕdindu*, *garbitu* ta *aberazlutea* bere lan nagu-

1. Ikus EUSKERA onen I^{ko} Atala, 68 gaŕen oŕian.

siak dira; yakintza utsezko gai ta lanetan ez da galdu beaí.

2. Euskeraren bardintza beaíezkoena da; euskera garbitu gabe, apain guztiak kaltegin ala alpeíekoak dira; Lenengoz egin beaí deguna a da, beste lanetara asko sartu gabe; gaurtik ba, euskera zenbat eta aberatzago ta garbiago erabili, gutxiago ulertu ta irakuíiko da, nekezago da euskeldun guztien artean euskera bat zabaltzea.

3. Bardintzara eltzeko *euskelki eredu* bat gertuko du Euskaltzaindiak ta idazkietan gaurtik *nola ta noiz* erabilteko arauak idazleai emango dizkie.

4. Euskelki eredu (bigarko bakaía) gertuteko, eíiak itz-egiten duten bat autuko da, zerbaitez arautu ta osatuko. Izelki beíi bat ez da izango, ezta ere izkelki batzuen naaste ala asmauriko bat; gaur egiñik dagon bat baizik, euskeldun guztiak adigafi izateko eragozpen gutxien aurkituko duten Gipuzkoako oraingo euskelkia.

5. Batez ere onartuko ditu Euskaltzaindiak : a) Gipuzkoa geyenean zabaldurik dagozan itz ta erak (yokuak etc.); onako batzuen artetik autu beaía izan ezkeru Euskaleíi guztian zabalduena ala arautuena; — b) beaíezko itzen bat Gipuzkoan izan ezik ala gutxi ezagutua izanik, Euskaleíi geyenean zabalduena.

6. Eíian gutxi erabilten dan izlegia onartzeko guztiz begiratu ta neuítuak izango beaí gera. Itz beíiak, zaaf galduak ala baztertuak ontzat artzeko, *beaí-beaíezko ta batez ere aígí ta eíazak* izan beaí dira; nok, noiz sortuak, nongoak dirana baño geyago begiratuko zayo oíeri.

7. Euskeraren garbitze ta arautzeari muga bat yafi beaí zayo ta kendu-gaitz ala eziñak ta sustrailak eíne bizi diran erderazko itzak, gaurtik beintzat bakean utzi beaí ditugu.

8. Izkerá indartsu geyenak anaítu dituen itz *yakintsu* ta bestelako asko geuretu beaí ditugu, batez ere *gure ar-*

tean gutxi erabiltzen diran lanbidekoak, ta ordezeko éraz bat aurkitzen ez zayenak.

9. Aberastasunak ere bai beste muga batzuk beař ditu (euskeraren bizitzari begira) : *Ikuř bateko* itzak eukitea kaltegiña izaten da askotan : *ila-izen*, abere, landara..., onen zatiak..., egunoroko tresna, lanbide ta zeregiñ askok *izen bat baño geyago eukitea* naaste ta kalterako baizik geyenetan ez da izaten.

10. Ikuř-bateko itz geyen oriek berezi ta ikuř antzeko asko eraltzea, itzak geyegi ugarituaz, gaurtik beintzat ez litzateke egokia. Bardintzaren kaltez egingo litzake lan ori ta euskaldun guziak alkař-uleřtzeko yakin beař dituen itz bakařak nekezago ezagutuko lituke.

11. *Fonetika*. Onetzaz Gipuzkoan bardintasunik ez dagoenetan, euskaldun geyenentzako érazena autuko da, ta érazena ta ařgiena da benetako fonetika kentzea, *itz-batzetako* batez ere, Euskaleři geyeneko izkera-lege baten kontra ofegaz yoan ezik.

Fonetika bat edo bestea ařtu ařen, itz zaařen izki ta izakera ez dira ikutuko ta aldakuntza gabe yařaituko dira aek.

12. Al izan ezkerotan Euskaltzaindiaren euskelki eredu euskera bardin, garbi ta apainduz idatzi ta itz egingo da, baña beti *irakuřle ta entzuleak uleřtu* beař dutela begiraturik.

Ořen kalte yoan gabe, euskelki eredu batzuetan *osoro*, besteetan *zatika* (geyago ala gitxiago) erabili leike ta ezbardintasunak gutxitzeko lan onuratsu bat egin.

13. Erabiliko da *osoro* : gipuzkoar euskalkiko aldeřdian (Gipuzkoa, ta Nabařako mendialdea), irakuřle on ta gei yakintsu ala sakondun idazkietan, Eřki-ařteko arazoetan ta Eřki batzuetako euskaldun ala geyenen artean zabaldu nai ditugun idazkietan.

14. Gauřko idazkietako ezbardintasun batzuk *naiez-*

koak dira (Efiari efaztasunik batere ematen ez dioenak); beste batzuk *noizean bein beahezkoak*.

15. Idazki guziak bardin erabiliko dituan zatiak dira : Ortografia ta Fonetika, itz bañi ta biztuak.

16. *Zatika* (al dan guziz baña) erabiliko da euskalki eredia, gipuzkoeraren alderditik kanpoan *irakurle txarentzako* idazkietan.

17. Orduan, baña, *ulelgaritzat* (aditzeko) *beafko* diran Efkiko itz ezbardinak oituko dira, besterik ez. Galdu ala bazterturik dagozan Efkki, uri ala auzo-itzak, geyenai efaztasunik ez dioe ekaften, neke ta iluntasuna baizik. Ulelftzen diranetan euskalki ereduaren itzak erabili beaf dira (ta euren Efkiko ordezkioak geyenetan bazteftu), Ori, itz antz-antzeko askorekin egin leike (Bañi = beñi; ikatz = iketz).

18. Gipuzkoera-alderditik kanpoan gipuzkoeraz ta bertako izkelgiz, ez bestez, idatziko da; azpi-izkelgi (sub-dialecto) bat baño geyago bertan balego, bat bakarik idazkietarako oituko da, alegiñez gipuzkoako euskeraren antzekoena.

19. Euskera bardintzeko lana luzea izanaz, al izan ezkerero geyen erabilten dan iztegi, beahezkoenetik asiko da. *Biotza*, guztien iztegia ta beste iztegi batzuk edozein berretu leikez : efitar guztiak ezagutu ta safi erabilten dutena da lenengoa, beahezkoena. Lanbide-iztegiak, elelftiko itz-apaiñak, gutxi aipatuten diran izaki ala gauzaen izendegiak, irakurle gutxik ezagututen ditu (askotan oso gutxik) ta beste izkeretan ezbardin bizi izaten dira. Al izan ezkerero ba, Euskaltzaindiak lenengoz bardindu ta euskaldun guziaz yakinerazo beaf diena da egunoroko euskera, guztien iztegia, len bai len guztiak alkar-aditu dezaten.

20. Euskelgi eredia edonun erazautzeko alegiñak egingo dira, idazkietan, ikastoletan etc.; zenbat eta geyago

argitaldu, itz-egin, abeztu, antzestu... Edonondik zabalduko da euskelgi oñen *itztegi ta gramatika labur-labur* bat, beste eleřtidun euskelgien ikurakin ; Oñetan edo guziaz emango zaizkion oñitxo batzuetan begi-yote batekin ikusiko ditu lapurřak, bizkaitarřak bere euskelgitik gipuzkoera-eredura dagozan ezantza yakingarřiak.

Bilbon 1920-Epailako 24 an.

BELAUSTEGIGOITIA' TAR P. URGAZLEA.

s XII

-KARI ATZIZKIA

GARILAREN 23' GAREN EGUNEKO BATZAREAN EGUZKITZA YAUNAK
EGINDAKO IKERPENA'

Erabilkerea.

Izenai, zeindiñai ta aditzai ezarten yake :

1º Izenai : agekari, aginkari (ainkari), albokari, aldakari, apaxkari, andrakari (andrekarari), arnokari, ardai-kari, afikari, astekari ... belarřakari, bidekari, bořokari, buřukari, egunkari, egurřakari, eltzekari, gaikari (gaurakari), izerkari, kiñakari, lepakari, mařukari, mendikari, musturřakari, narřstekari, oinkari, ostikari, saunkari, soinkari, untzikari, urřakari, zaingari, zezenkari, etc.

2º Zeindiñai : agerkari, aundikari, beřikari, garbikari, laisteřakari (lasteřakari), legunkari, luzakari, maitakari.

3º Aditzai : arřapakari (arřapari), arřastakari, asmakari, aztakari, bultzakari, egaldakari, egikari, eginkari, ehokari (egokari), egoskari, ekuskari, helkari, emarřakari (emon-ar-kari), emokari, erakuskari, erorkari, eskari,

1. Ikus EUSKERA onen I^{ko} Atala, 77 garren orřian.